

Heteroaraua fokupean



EXPRESS ESKAINTZAK!

ARROPA GARBIGAILU LEHORGAILUA AEG LWR7194M2B

GARBIGAILUA



LEHORGAILUA



699 €

- Garbiketa 9 kg
- Lehortzea 5 kg
- 1400 b/min
- Prosense teknologia
- Lurrun-programa
- Teknologia dual sense

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Abitaherrietan ostirak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatik: 11:00 - 13:00

leopaindagi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162



MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

Hasi gara erregaluak biltzen!
Eskerrik asko!

Aurreko urteetan **TONBOLAK**
izan duen estimazioak bultzatuta,
abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,
Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu Kalegoen plazan.



"Abenduaren 24an
talo bat doan" bonoak



Gerrikoak



"Gipuzkoan zehar"
ibilbideen liburua



Estetika
produktuak



Gaua eta gosaria
Abatetxe Landetxean



Xaboiak



Bridak



Txapelak



Zintzillarioak



"Elgoibarko euskara"
liburua



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako en erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

Herri-imana



***"Dena ez da ideala:
etxebizitza topatzea,
kotxerik gabe mugitzea,
herrian bertan
lana topatzea..."***

Aurreko asteko alean Maialen Sanchezek berarentzat herriak udarako elkarleku eta txikitako oroitzen askoren jatorri izan daitezkeela aipatu zigen. Eta egia esan, askotan "herri txiki, infernu handi" esaten den arren, herriek ere badute erakartzeko iman berezi bat.

Nire kasuan esaterako, duela urtebete etorri nintzen lehenengo aldiz Tenerifera bizitzera. Orain arte, hirietan bizitzen egon naiz, zerbitzu gehienak gertu nituelako, eskaintza kultural eta sozial handia zegoelako, gazte asko bizi zirelako inguruan eta garraio aldetik konexio hobeak zeudelako. Lagun batzuk bisitatzen joateko aitzakiarekin, herri txikiago batzuetara joaten hasi nintzen maiz. Askok gustatu zitzaizkidan herriek transmititzen zidaten lasaitasuna, eta batez ere, lana bukatu ostean, kirola naturan, aire libreakin, bakarrik edo lagunekin egiteko aukera izatea. Ondorioz, aurrerago batean nire burua bertan bizitzen irudikatzen hasi nintzen.

Gradu Amaierako Proiektua ere "fenomeno" honi buruzkoa egin nuen; gazteak herrietara erakarri eta gazteen bitartez herriak dinamizatzeari buruzkoa. Eta hara! Nork esango luke, baina hemen nago urtebete geroago, 3.000 biztanlera iristen ez den Bajamar herrian bizitzen.

Lagun asko gara inguru honetara bizitzera etorri garenak, hizkuntza, kultura eta jatorri desberdinetakoak, baina denok dugu zerbait elkartzen gaituena eta horrek egiten du niretzat berezi. Balore antzekoak partekatzen ditugu, bizitza estilo antzekoa bilatzen dugu eta denok mugitu gara gure "etxetik" zerbait berriaren bila.

Alabaina, dena ez da ideala: etxebizitza topatzea, kotxerik gabe mugitzea, herrian bertan lana bilatzea... ez da batere erraza hemen, eta noski, familia eta lagunak gertu ez izatea ere igartzen da. Baina tira, dena lortzea ez da posible eta askotan lehenetsi egin behar da. Beraz, oraingoz hemen bizitzen jarraituko dut, beti ere Elgoibarri konektatuta egonda noski, orain bertan artikulu hau idatziz adibidez.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Urriaren 21ean mobiliza gaituzen!

2024ko urriaren 7an, Gernika-Palestina herri plataformak hainbat alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialekin batera adierazpen bateratua plazaratu zuen Aieteko (Donostia) giza eskubideen jauregi aurrean. Horrekin batera, datorren urriaren 21ean 19:00etan Euskal Herriko udaletxe aurrean elkarretaratzek egiteko deia egin dute.

Bertan irakurri zen pasarte bat jartzen dizuet hemen egoeraren larritasunaz jabetzeko: "Ezerk ez du inoren lurraldea okupatzea legitimatzen, ezta gerren ondorio krudelak ere, ez eta populazio oso bat suntsitzea, giltzapetzea, edota ukatzea ere. 2024. urte honetan, ordea, inoiz gertatu den genozidiorik krudelenetariko baten lekuko gara, eta halere, nazioarteko komunitateak ez du izugarrikeria honekin bukatzea lortu. Izugarrikeria diogu, bi daturen bidez soilik ikusaraz dezakegulako genozidio palestinarren irismena: Israelgo Armadak, Israelgo estatuak alegia, dagoeneko 41.000 palestinar erail ditu, eta Gazako kaleen eta azpiegituren %70 suntsitu ditu. Bi datu soilik, ondorio humano, sozial eta politiko larriak dituen Nakbha baten aurrean gaudela baieztatzeko. Israelek Libanori eraso eginda, milaka hildako eta suntsipen gehiago

eragingo duen urratsa egin du. Non eta nola amaituko den ez dakigun espirala abiatu da".

Beraz, niretzat ezinbestekoa da indarrak batzeko modu masiboan mobilizatzea. Genozidioa geldiarazi behar dugu eta horretarako jendarte zibilak dauka berebiziko indarra: aktibazioa. Urriaren 21ean, Donostian izandako lehen mobilizazio handiaren urteurrenarekin bat eginez, herri guztietako udaletxeen aurrean izango diren kontzentrazioetan parte hartzera animatzen zaituztet. Gorde zuen agendan. Genozidioari stop!

A.I.Z.

..... **BARRE**neko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 655 658



Erdiguneko argiak egunez piztuta

egon dira: "Joan zen astean pare bat egunez piztuta egon ziren erdiguneko argiak. Gaur egun energiarekin dagoen arazoa ikusita, horrelakoak kontu gehiagorekin zaintzeko eskatu nahi nuke. Sarri ikusten ditugu gauzez Herri Eskolako patioko argiak piztuta, Aita Agirre eraikinekoak ere bai...".



Haur parkeak eta tabernetako terrazak bat egiten dute ingurune askotan:

"Hausnarketarako gai bat proposatu nahi nioke Udalari: Elgoibarko hainbat gunetan haurrentzako jolasguneak eta tabernetako terrazak bat egiten dute eta arrisku oneak bizitzen dira. Lekueder parkean, esaterako, haurrentzako saskibaloia eta futbol kantxa bat dago, umeek herrian duten ia kirolerako jolastoki bakarra da, baina taberna bateko terrazako mahaiaik kantxatik oso gertu daude. Mahaian

eserita dauden herritarrek tarteka baloikada bat edo beste jasotzen dute, baina jakina, umeek han dute jolasteko lekua. Gauza bera gertatzen da Kalegoen plazan edota Maalako parkean. Umeek jolaserako guneak behar dituzte herrian, gune seguruak, baloiari ostikoak lasai eman ahal izateko guneak. Terrazak ere lasai egoteko guneak izan behar dute. Ez da erraza bi guneak uztartzea, baina Udaleko Hirigintza Sailak egin beharko luke ahalegin bat herria berrurbanizatu eta herritar guztiontzako irtenbide bat topatzeko".



Elgoibarko Udalak auzoekin batera ekimena antolatu du, auzotar desberdinekin elkartu eta beraien iritziak entzuteko. Ni erdialdean bizi naiz eta ez dut joateko aukerarik izan. Udalak erdialdea ez du auzo kontsideratzen? Jakin nahi nuke gurekin beste era batera biltzeko asmorik duten:

Udalera jo dugu galdezka, eta Maialen Gurrutxaga alkateak erantzun hau eman dio galderari: "Eskerrik asko zure iritzia eta kezka partekatzeagatik. *Auzoekin batera* ekimenaren helburua Elgoibarko auzoetako errealitateak gertutik ezagutzea da, bertako auzotarrekin zuzenean harremanetan jarritz.

Udalak erdiguneko jarduera eta beharrei ere adi jarraitzen die, izan ere, gure eguneroko ekintzak erdiguneko espazioetan garatzen ditugu. Hala ere, zure partaidetza eta iradokizunak oso garrantzitsuak dira guretzat. Zure iritziak edo proposamenak zuzeneko bideetatik helaraz ditzakezu: Udalaren HAZ zerbitzuaren bidez, telefonoz, bilera eskaera bat eginez edo, nahi izanez gero, zuk eskatuta, zuzenean zuregana joango ginateke. Horrez gain, gogorarazten dizugu *Linea Verde* aplikazioa erabil dezakezula herria hobetzeko zure ekarpenak egiteko. Elgoibarko Udala beti dago herritar guztien iritziak entzuteko prest, bai auzoetan, bai erdigunean".

Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak irakurzaletasuna eta sormena sustatzeko

Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak LH1etik DBH4ra artekoentzat. Hiru maila bereiztuko dituzte, adinaren arabera, eta egin beharreko lana ere ezberdina izango da kategoria bakoitzean. LH1etik LH4ra artekoek, esaterako, idatzizko ipuin bat ilustratu beharko dute, A4 tamainako orrian nahi duten teknika erabilita. Ipuinaren kopia udaletxeko harreran, liburutegian eta ludotekan eskuratu ahal izango dituzte. B mailakoek, LH5etik DBH2ra artekoek, emandako ilustrazio batetik abiatu eta ipuin bat sortu beharko dute euskaraz. Gehienez bi orrialdeko ipuina izan beharko da, makinaz nahiz eskuz idatzitakoa. Azkenik, C mailakoek, DBH3 eta DBH4 mailako ikasleek, komiki bat osatu beharko dute, euskaraz. Ilustrazioak udaletxeko harreran, ludotekan, gaztelekuan eta liburutegian jaso ahal izango dituzte. Azaroaren 30erako aurkeztu beharko dira lanak beranduenaz, udaletxean (eskura nahiz postaz: kultura@mendaro.eus), izen-abizenak, ikastetxea, maila eta telefono zenbaki bat zehaztuta. Maila bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu saritan eta oroigarri bana parte-hartzaile guztiek.

40 bat lagunek eman dute izena Mendaroko joste tailerrerako

In Leike kultur elkarteak antolatuta bilera egin zuten eguaztenean Mendaron, joste tailerra sortzeko. Guztira 40 lagunek eman dute izena momentuan, eta bileran adostu zuten martitzen eta eguaztetenan biltzea, 17:00etatik 19:00etara, udaletxeko hirugarren solairuan. Batera zein bestera joan daiteke, nahiz bietara. Josten dakitenek etxean egindako lanak eramango dituzte, besteak zer ikasi nahi luketen erabakitzeko. Egun horietako bakar batean joan ezin duenari In Leikera idazteko eskatu die antolatzaileek, beste aukeraren bat aztertzeko: mendaroninleike@gmail.com

Ikastola gaineko jolaslekua berritzen ari da Mendaroko Udala eskola-umeen iritziak kontuan hartuta



Trinitateko parkea, ikastola gainekoa, berritzen ari dira Mendaron. Horretarako hainbat enpresek egindako proposamenak aurkeztu zizkien Udalak 5 urtetik 10 urtera bitarteko ikastolako haurrei eta haiek aukeratutako proiektua ari dira gauzatzen. Kimubat enpresa ari da lanean eta obrak 37.645eko aurrekontua du (BEZ barne).

Uztaileko KPIaren arabera igoko ditu udal zergak Mendaroko Udalak

Udalbatzaren iraileko osoko bilkuran hartu zuen erabakia Mendaroko Udalak. Orokorrean uztaileko KPIaren arabera igoko ditu udal zergak 2025ean, hau da: %2,9. Zaborren gaineko tasa, baina, "eskainitako zerbitzuagatik Mankomunitateak Mendaroko Udalarari igotako proportzioan" igoko da, hau da, %9a. Esate baterako, etxebizitza bati dagokion urteko zaborren tasa 13 eurotan igoko dute.


Herrian bertan erostea sustatzeko kanpaina hasi du Mendaroko Udalak

Mendaron bizi, Mendaron erosi! kanpaina jarri zuen martxan Mendaroko Udalak astelehenean, urriaren 7an eta urriaren 30era bitartean egongo da indarrean. Tarte horretan herritarrek deskontuak izango dituzte kanpainara batu diren hamahiru establezimenduetan. Bonaua erosita, herritarrek 30 euro kontsumitu ahal izango dituzte 20 euro ordainduta.

11 hilabeterako itxi dute King Kong zubia, pasabide berria egiteko

Deba ibai gaineko pasabidea eraisteko lanak hasiko dituzte aurki, eta ondorioz, eguaztenetik itxita dago King Kong zubia. Ikaroren egitura desmuntatzeko lanetarako eta, ondoren, zubia berritzeko proiektuaren bigarren faseko lanekin jarraitzeko beharrezko aldarmioak jarri behar zituztelako itxi zuten zubia. Gutxienez 11 hilabetez mantenduko dute itxita. Eguaztenean bertan kendu zuten Ikaroren figura. Hegan eraman zuten, hain justu berak egin nahi izan moduan. Greziar mitologiako pertsonaia da Ikaro, eta kondairak dio aitarekin dorre batean preso egon zela. Ihes egiteko argizarizko hegoak egin zizkion aitak, eta Ikaro oso gora joan zen. Eguzkiaren beroak hegoak urtu zizkion, eta erori egin zen. 1998tik dago Ikaro Elgoibarren. Eskultura zaharberrituko dute, eta gero, berriz jarriko dute herritarren eskura.

Zubia itxita dagoen bitartean, Merkatu plaza



👤 Aitor Zabala

atzeko zubia, eta ekainetik martxan dagoen igogailua eta pasabide berria erabili beharko dute Urazandira joan nahi duten herritarrek; edo bestela, Maala aldetik egin ahal izango dituzte auzorako sartu-irtenak. Bide hori oinezkoentzako erabilgarriago egiteko asmoz, Morkaiko kaleko aparkalekuak kendu egingo dituzte.

Debabarreneko Gazte Asanbladen topaketa egingo dute bihar, Deban

Debabarreneko Gazte Asanbladek topaketa egingo dute bihar Deban, gazteen egoeraz hausnartzeko, elkar ezagutzeko, komunitatea eraikitzeko, eskualdeko herrietan egin ditzaketen ekarpenetaz eztabaidatzeko, zein tokian tokiko esperientziak trukatzeko. Ekainean Gazte Langileen Topaketa egin zuten Azeitian, eta han sortu zen Gazte Asanbladen Topaketen ideia. Egun osoko egitaraua prestatu

dute: 11:00etan egingo diete harrera guztiei, eta gero egungo gazte asanbladen erronkei buruzko mahai-ingurua izango dute. Bazkaria egingo dute ondoren, eta arratsaldean Manex Astigarraga, Esti Curiel eta Asier Galartzaren bakarrizketak, olinpiadak eta karropoteoa izango dituzte. Gauean, berriz, Obego eta DJ boys taldeen kontzertua, eta ondoren, Tola eta Potxolaren DJ saioa.

Elgoibarko Herri Eskolaren Eguna ospatuko dute urriaren 19an



Urriaren 19rako antolatu dute aurten Elgoibarko Herri Eskolaren eguna, eta nahi duenak ikastetxea ezagutzeko aukera izango du. Herritar eta familia guztientzako ekitaldia prestatu dute, eta tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek: makillajea, bideogintza, dantza... horrez gain, edariak eta pintxoak dastatzeko aukera ere egongo da. 11:00etan hasiko dira ekitaldiak.

Askotariko ekintzak antolatu dituzte Altzolan azaroa bitarterako

Mendaroko Aitzbeltz kobazulora urriaren 19an (zapatua) egingo duten irteerarekin hasiko dute Altzolan urria-azaroa bitarterako antolatu duten kultur agenda. Mendaroko kobazulorik ezagunenetako bat da Aitzbeltz, garrantzi arkeologiko handikoa eta bere geologia karstikoagatik ezaguna, bai eta erromeria eta ele zaharrekin izan duen loturagatik ere. Urriaren 19an 10:30ean elkartuko dira Altzolako frontoian irteerarako. Antolatzaileek esku-argia, bururako kasko bat (izan bizikletakoa nahiz bestelakoa) eta mendirako oinetakoak eramateko eskatu dute. Irteerarako izena eman nahi duenak ondoko telefono zenbaki honetara deitu behar du: 635 753 447.

Urriaren 26an, berriz, Azpeitiko tren museoa bisitatuko dute. 10:30ean abiatuko dira Altzolatik eta 14:00ak alderako itzultzea aurreikusten dute. Beste bi irteerak azarorako programatu dituzte. Azaroaren 9an (zapatua), Elgoibarko Mufomi



museora joango dira. Egun horretan ere 10:30ean batuko dira Altzolako frontoian museora joateko, eta 14:00ak alderako itzultzea aurreikusten dute. Ordu horretan mokadua egingo dute, Altzolan. Izena emateko: 635 753 447. Azaroaren 16an, bestalde, Gaztainerre eguna ospatuko dute, 18:00etan, frontoian. Umeentzako puzgarri bat ere jarriko dutela aurreratu dute.

Gaba Beltza antolatzeko laguntza behar dute Elgoibarren



Urriaren 31rako (eguna) ari dira Gaba Beltza antolatzen Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolakoak, Atxutxiamaikakoak eta Udal Ludotekakoak, baina egun horretarako egitaraua osatzeko laguntza behar dute, eta laguntzeko deialdia egin diete herritarrei. Honako lan hauetarako behar dute laguntza: atontzeko tailerretan laguntzeko; txokolatea egin eta banatzeko; zuziak eramateko; desfilean parte hartzeko; perkusioa jotzeko, eta ibilbidean zehar laguntzeko (giza-hesia egin, ura eraman...).

2.735 euro banatuko ditu Elgoibarko Udalak euskara ikasteko

2024-2025 ikasturtean Udal Euskaltegitik kanpoko euskaltegietan edo barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak. Guztira 2.735,50 euro banatuko ditu eta esleitutako zenbatekoen arabera banatuko du dirua onuradunen artean. Dirulaguntza hori hemeretzi pertsonak jasoko dute. Horietatik 18k euskaltegi batean ikasi dute euskara eta besteak, barnetegi batean.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, barikua, Elgoibarren

Gaur, barikua, odol ateratzeak egingo dituzte Elgoibarren, jubilatuen biltokian, 16:30etik 20:10era bitartean. Hitzordua eskatzeko honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 623 328 408.

Mendaroko Udalak 17.951 euroko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarrari

Enetz Ezenarro Mendaroko alkateak eta Amaia Sastre Elgoibarko Izarrako presidentek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten eguaztenean, Mendaroko udaletxean. Hitzarmenaren helburua da Mendaroko Udalaren eta Elgoibarko Izarraren arteko lankidetzarako eremu egonkorra ezartzea Mendaron, euskararen eta euskal kulturaren alde lanean diharduen elkarteak BARREN aldizkariaren inguruko jarduerak gara ditzan aurtengo urtean. 17.951 euroko dirulaguntza eman dio Udalak 2024ko ekitaldirako. Elgoibarko Izarratik eskerrak eman dizkiote Mendaroko Udalari, BARREN komunikazioa proiektuari eskaintzen dion laguntzarengatik. Izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, euskara eta euskal kultura sustatzeko.



Jaio aurreko eta jaioberrien heriotzaz eta doluaz arituko dira Lilan, eguaztenean



Haurdunaldian zehar, erditzean edo jaioberritan gertatzen diren heriotzek sortzen duten minari buruzko saioa antolatu du Udalak hilaren 15erako, Esku Hutsik elkartearekin batera. Helburua da egoera horiek bizi dituzten familiei laguntzea dolu prozesuan, eta gizartea gai honen inguruan kontzientziatzea. Informazioa emateaz gain, laguntza emozionala ere emango diete. 18:00etan izango da saioa, gaztelaniaz, Lilan. Saio irekia da, herritar ororentzat eta ez da izenik eman behar.

Hernaniko aztarna megalitikoetan barrena bisita gidatua antolatu dute urriaren 26rako

Epele bailaran barrena ibilaldi gidatua antolatu dute *Gure natura ezagutzen* egitasmoko sustatzaileek: Morkaikok, Atxutxiamaikak eta Baso Biziak-ek. Iñaki Sanz Azkuek (Hernani, 1981) egingo ditu gidari lanak. Biologian Lizentziatua da (2004) Euskal Herriko Unibertsitatean, Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Saileko kidea ere bai 2003az goerotik, eta 2006tik ondare naturalaren eta ahozko ondarearen ezagutzari eta kontserbazioari loturiko hainbat proiektu koordinatzen dihardu.

Epele bailaratik abiatuz, Igorin mendira (459 metro) igoko dira, eta handik Akola estazio megalitikora joko dute. Ondoren, Ereñotzu auzotik itzuliko dira herrigunera. 15 kilometroko ibilbidea osatuko dute, eta bazkaria etxetik eraman beharko da. Zehaztu dutenez, 14 urtetik gorakoentzat gomendatutako ekintza da. Autobusa Txankakoako autobus geltokitik irtengo da 08:00etan eta 17:00etan itzuliko dira Hernanitik. Izena eman behar da.



Ekaitz Vegas, Hodei Otegi, Joseba Goñi eta Markel Iraola (makurtuta).

KALEAN DA 'JUDASH'

✍️ Ainhoa Andonegi 🎸 Etakitto! / Judash

Berezia da Judash taldearen historia. 2017an sortu zuten taldea Rodisa enpresako lau lagunek, tartean, Hodei Otegi elgoibartarrak, auto istripuan hil zen Iker Amutxastegi lankide ohiaren omenez. Hilabete batzuk lehenago laga zuen Rodisa Azkoitiko enpresa batera joateko, eta handik bueltan zetorrela Azkaraten izan zuen istripua. Ordurako hasita zeuden Joseba Goñi, Markel Iraola eta Ekaitz Vegas musika egiten, eta Patxi Argarate lankideak animatu zituen Amutxastegiren aldeko kontzertu bat egitera. Taldeari izena jarri behar zioten, eta Judas Argarate izenarekin irten ziren plazara estreinakoz. Kultur Etxeko sotoan izan zen estreinaldia. Orain iraupen luzeko diskoa kaleratu dute 'Judash' izenarekin, eta taldeari diskoaren izen bera jartzea erabaki dute.

Rodisa enpresan dauka jatorria Judash heavy metal taldeak. Bertako lankideak dira Hodei Otegi elgoibartarra eta Joseba Goñi, Markel Iraola eta Carlos Balseiro eibartarrak. Musika dute gustuko laurak, eta elkarrekin entsetzen hasi ziren, Balseiro kubatarrak Eibarren zeukan lokal batean. Balseiro PAM edota Julio Kageta moduko taldeetan ibilitako musikaria da, eta hain justu ere PAM taldeak bere jarduna laga zuenean hasi ziren Rodisako lau musikariak Balseiroren lokalean entsetzen. Balseiro bera jarri zen baterian, Joseba Goñik hartu zuen baxua, Markel Iraolak teklatura eta Hodei Otegiak gitarra.

Iker Amutxastegi lankide izandakoa hil zenean hari omenaldi bat egiteko ideia bururatu zitzaion Patxi Argarate lankideari. "Bazekien entsetzen ibiltzen ginela, eta esan zigun animatzeko, zerbait polita egin genezakeela", gogoratu du Hodei Otegi. Horrela hasi ziren kontzertua prestatzen, eta hainbat eszenatoki aztertu ondoren, Kultur Etxeko sotoan egin zuten. Plazara irteteko izena behar zuten, eta Argarateri keinu eginez, Judas Argarate izenpean irten ziren oholtzara. Horrela ibili dira urteetan, baina diskoa kaleratzeko orduan taldeari izena aldatzea erabaki dute: "Argaraterena txantxa moduan hasi zen, eta Patxik berak ere uste zuen bazela taldeari bere abizena kentzeko garaia".

Judash izena jarri diote taldeari, eta baita diskoari ere. 2021ean Balseirok taldea laga zuen eta Ekaitz Vegasek hartu zuen lekukoa perkusioan. 2023an hasi ziren diskoa grabatzen, eta Walter Tuzzeo arduratu behar zen nahasketez, baina hil egin zen soinu ingeniaria, eta, azkenean, Axular Arizmendik nahastu zuen Mutrikuko AME estudioan. Azkenik, Baionan masterizatu du Paxkal Etxeparek, eta dagoeneko, kalean da. 11 abestiz osatutako diskoa da *Judash*. Euskaraz abesten dute, baina bi kanta gaztelaniaz dituzte, Balseirok egin zituelako. Otegiaren ustez, beraien berezitasuna soinua da: "Gu oso gustura geratu gara emaitzarekin, eta jendeak esan digu oso heavy-ak garela. Pozik gaude. Entsetzen hasi ginenean burutik pasatu ere ez zitzaigun egiten disko bat aterako genuenik, eta azkenean lortu dugu". Diskoa Elgoibarko Tantaka tabernan dago salgai.

Kontzerturen batzuk ematen ere hasi dira, eta azkena Eibarren eman zuten irailaren 28an, Walter



Eibarren irailaren 28an eman zuten kontzertuko argazkia.

Tuzzeo soinu teknikariaren omenez antolatu zuten jaialdian. Abenduan beste kontzertu bat emango dute Eibarko Coliseo antzokian, baina argi daukate musika beraientzat zaletasun bat dela: "Laneko erreleboekin eta familia kontuekin zailtasunak izaten ditugu biltzeko, baina serio hartu dugu musika kontua eta asko entseatzen dugu. Hala ere, badakigu hau zaletasun bat dela, eta gure asmoa ez da inundik ere musikatik bizitzea".

Otegi Elgoibarko musika eskolan egin zituen musika ikasketak, eta bertan hasi zen gitarra jotzen. Gerora, bere kontura jotzen hasi zen, eta beste musikari batzuekin batzen zen Fundizioko lokalean eta musikari batzuk Sallobenten zuten lokalean. Musika ihesbide bat da beretzat, eguneroko lanetik eta errutinatik irteteko. Judash Eibarko Musikarien Elkartean sartuta

Eibarko Musikarien Elkartean sartuta dago Judash, eta Hodei Otegi taldekideari iruditzen zaio horrelako elkartean ekarpena garrantzitsua dela musikan hasi nahi dutenentzat

dago, eta iruditzen zaio horrelako elkartean ekarpena garrantzitsua dela musikan hasi nahi dutenentzat. Judash-ek hasi du bere bidea, eta aurrera begirako asmoen artean kontzertuak ematea eta musikaz gozatzea aipatu ditu Otegi. "Baionako gaztetxean eman genuen kontzertuan izugarri gozatu genuen, eta horrela segitzea da gure asmoa".



Judash taldekoak lokalean entseatzen.



JUBILAZIOA EZ DA ERRETIROA

 Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Italiara bidaiara antolatatu du, eta ehundik gora lagun batu dira. Bi astetan joan dira, 52 lagun lehenengo txandan eta 51 bigarrenengan. Astebete egin dute han, eta bertako toki esanguratsuenak bisitatu dituzte: Erroma, Florentzia, Venezia... Antolatzailleak pozik agertu dira bidaiak eman duenarekin, bai eta parte-hartzaileak eurak ere.

Duela urtebete aldatu zuten Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko zuzendaritza, eta Lurdes Beneitez izendatu zuten lehendakari. Hasieratik adierazi zuen aire freskoa eman nahi ziotela Jubilatuen Biltokiari eta zahartze aktiboa sustatu nahi zutela. Horren adierazle bat gehiago izan da Italiara egin berri duten bidaiak. Bi txandatan joan dira: 52 lagun lehenengoan eta 51 bigarrenengan; guztira 103 lagun. Lurdes Beneitez berak azaldu du bidaiak arrakasta handia izaten dutela eta aurreko zuzendaritzakoek antolatu izan zituzten Britainiarako eta Kroaziarako bidaietan

ere jende askok parte hartu zuela. Hala ere, oraingoan marka guztiak hautsi dituzte, izan ere, jendea itxaron zerrendan geratu da. "Italia oso herrialde erakargarria da, eta jende asko animatu da". Taldean bidaiatzeak abantailak dituela iruditzen zaio Beneitezi, eta, uste du askok bakarrik egingo ez luketen bidaiak egiteko aukera izan dutela: "Batzuk bakarrik etorri zaizkigu eta normalean bidaiatzera animatzen ez direnak izan dira asko, taldearen babesean gustura ibili direnak. Adin batetik aurrera, jende asko ez da ausartzen horrelako bidaiak egiten, baina denok batera joanda elkar zaindu dugu eta primeran ibili gara".

Astebeteko egonaldia egin dute Italian. Autobusez joan ziren Loiuko aireportura, eta Erromarako hegaldia hartu zuten han. Hiru egun pasatu zituzten Erroman, beste hiru Florentzian eta azken bi egunak Venezian. Etxerako itzulera Veneziako aireportutik egin zuten. Autobus pribatuan mugitu ziren herrialdean zehar, eta uneoro izan zuten turismo arduradun bat azalpenak emateko. Vatikanoa bisitatu zuten, eta baita hango Kapera Sixtinoa ere; Erroman, Koliseoa, Palatinoa eta katekonbak ere bisitatu zituzten, besteak beste. Florentzian bidean, Pisan egin zuten geldialdia hango dorre okerra ikusteko, eta Lucca herria ere bisitatu zuten. Florentzian, ikusi zituzten hango katedral eta toki esanguratsuenak, eta Veneziara bidean

San Gimignano eta Siena ikusi zituzten, Sienako Duomoa ere bisitatu. Venezian pasatu zuten azken eguna, hango kale bitxiak ikusiz, eta nahi zuenak gondolan ibiltzeko aukera ere izan zuen. Romeo eta Julietaren herrian egin zuten azken geldialdia, Veronan, eta handik aireportura joan ziren, etxerako bidea hartzeko.

Pozik itzuli dira bai bidaiariak eta baita antolatzaileak ere. Bidaia "gogorra" izan da, egunero hamar bat kilometro egiten zituztelako oinez. Turistaren bizimodua gogorra dela esan du Beneitezek txantxetan.

Urtebetean zuzendaritzaren martxari hartu diote eskua, eta antolatu dituzten ekintzek harrera ona izan dutela adierazi du. Gastronomía lehiaketa bat bakarrik laga behar izan dute bertan behera, inork ez zuelako izenik eman, baina osterantzean, Elgoibarko jubilatua oso aktiboak direla uste du. Hilabete honetan adinekoen hilabetea ospatzen ari dira, eta tailer berriak ere antolatu dituzte, esaterako xake edota makrame tailerrak. Domeketako dantza ere berreskuratu dute, eta aurrera segitzeko ideiarik ez zaie falta.



EZPATAK ETA ZEZENAK ERROSARIO KALEAN

✍️ Ainhoa Andonegi 📷 Asier Orbea

Desberdinak izan dira aurten Errosario kaleko jaiak, ohiko jai-egitarauan sokamuturra gehitu duelako Udalak. Saka ganadutegiaren zezenek hartu zuten herriko erdigunea goizean goizetik, eta herritar asko batu ziren, estreinakoz urrian egin den sokamuturrera. Horren ostean Errosarioko Amaren Ezpata-dantza kaleratu zuten Haritz dantza taldekoek. Udal korporazioa dantzariak lagunduta joan zen mezetara, eta han dantza egin zuten ezpata txikiak. Meza ostean San Bartolome eta Errosario kalean jarraitu zuen ospakizunak. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus





EGOITZ ARBIOL ALBENIZ

Antropologoa eta Hiruki Larroxa Kooperatibakoa

✍️ Ainara Argoitia / 📍 Elgoibarko Udala

'Elgoibarko LGBTI+ pertsonen bizipenen bilketa' izenburuko liburua aurkeztu zuten martitzenean Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak eta Hiruki Larroxa kooperatibak, orain Elgoibarko hezkuntza zentroetan eta zerbitzu ezberdinetan banatu asmo dutena. 2022an zehar hainbat elgoibartarri egindako elkarrizketetatik ateratako lekukotzak bildu dituzte liburuan, heteroaraua seinalatu eta horrek Elgoibarko LGBTI+ pertsonen gorputz, nortasun, bizi itxaropen, hautu eta rol jokaeretan daukan eraginaz ohartarazteko. Hiruki Larroxo kide Egoitz Arbiol Albenizek idatzi du liburua. Antropologoa da ikasketaz Arbiol eta besteak beste gizarte ikerlari, hezitzaile eta talde dinamizatzaile gisa ari da pedagogia feministetan, LGBTI+ gaietan eta gizontasun gaietan.



“Elgoibar itxia, politikoki mugatua eta itxurakeriazkoa dela uste dute elkarrizketatuek”

Heteroaraua seinalatzeko egin duzue lana. Azaldu dezagun zer den heteroaraua eta nola eragiten dien LGTBI+ pertsoneri.

Indar handiko egitura bat da heteroaraua, eta 'gu' bat definitzen du, 'normala', desiragarria eta betikoa dena, eta aldi berean, 'bestea' seinalatu du: normala ez dena, araua betetzen ez duena, disruptiboa dena. Egitura horrek, jakina, efektuak ditu herritarrengan, mugatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez, zehazten duelako zer den onargarria eta zer ez, eta markatzen duelako zer irudikatu daitekeen eta zer ez. Beharrezkoa iruditzen zaigu arau hori agerikoa egitea, barneratuak ditugun elementuen inguruan pentsatzen hasteko. Pentsatzen hasi behar gara, norberak zein mailatan betetzen duen heteroaraua, eta baita besteengandik desberdin egiten gaituen hori zalantzarria dela

ere, zalantza benetan leku interesgarria delako eraldaketarako. Gu eta besteen arteko hori hausten denean ateak zabaltzen dira besteari mina errekonozitzeko, bai eta bestea aitortzeko ere.

Zein da Elgoibarko LGBTI+ pertsonen beren herriaz duten ustea?

Azken urteetan LGBTI+ gaietan normalizazio bat izan dela adierazi dute elkarrizketatuek; 'bestea' onartzeko dinamika bat nabaritzen dela batzuen aldetik eta esparruak gero eta askotarikoagoak direla, baina ez kasu guztietan. Elgoibar herri aske moduan pertzibitzen duten galdetuta, txutxumutxu askoko herria dela uste dute gehienek. Txutxumutxu horien bitartez, komunitatea eta herria egituratzen da, baina, era berean, arauaren barruan eta kanpoan zer

dagoen ere adierazten da. Eta elkarrizketatuek uste dute, Elgoibarren, herriaren nortasunetik ateratzen den eta heteroarauak marrazten duen bitartasunetik irteten den oro bihurtzen dela txutxumutxurako bazka. Zentzu horretan, adierazi dute herriaren DNA n indar eraldatzaileek baino gehiago, egonkortzera eta aurretik datorren nortasunari eustera bideratutako indarrek operatzen dutela. Elgoibar nolakoa iruditzen zaien galdetuta, itxia, politikoki mugatua, itxurakeriazkoa eta eredu konkretu baten aldekoa dela esan dute. Heteroarauaren transmisioa oso agerikoa dela diote elkarrizketatuek, eta hala, heterosexualitatea aukera normala eta naturala dela pentsarazten dieten adibibide asko jaso dituztela umetatik.

Elgoibarren "gailentzen den gizotasun eredu" ere sartu duzue heteroarauaren marko erregulatzailan. Nolako gizotasun eredu da?

Ahultasunik erakutsi ezin duena. Testigantzetatik ondorioztatzen da beren genero adierazpena gizotasun eredu hegemonikotik aldendua duten gizonek dutela indarkeria jasateko arriskua. Aldiz, gizotasun hegemonikoari loturiko ezaugarriak betetzen badira, posible dela praktika sexual ez heterosexualak izanda ere indarkeriarik ez jasotzea, betiere, jakina, bere zirkulu intimotik harago ez bada jakiten. Lekukotza batek dio:

"Elgoibarren DNA n, indar eraldatzaileek baino gehiago, egonkortzera eta aurretik datorren nortasunari eustera bideratutako indarrek operatzen dutela adierazi dute"

"Nik uste dut herrian ez direla zigortzen batere jarrera sexualak homosexualitatearen baitan. Hau da, gizonen arteko sexu praktikak ez dira zigortzen. Zigortzen dena da identitate hori, sexu praktikak zigortuko balira ez litzatekeelako bakar bat libratuko. Baina klaro, *marika* izatea, edo [...] *bollera* edo... hori da zigortzen dena herrian". Irainen barruan ere, oraindik ohikoena *maricón* da. Gizotasun eredu zehatz batetik kanpo kokatzen den hori seinatzeko erabiltzen da gehiago *maricón*, sexu praktika homosexualak dituen gizona seinatzeko baino. *Maricón* hitzarekin gizon batek zer izan behar ez duen adierazten da: gizonak ez du femeninoa izan behar. Irain horiek egiten dituztenak batez ere haur mutilak eta gizon gazteak izaten dira. Era berean, esan behar dugu *bollera* hitzaren erabilerak indarrean jarraitzen duela topatu dugula. Oso zabalduta dago eta emakumeen genero-adierazpenaren araua hausten duena



iraintzeko balio ez duen arren, desberdintasuna markatzeko balio du oraindik.

Jende bat heteroaraura ekartzeko irainak, mehatxuak eta seinalatzeak erabiltzen direla jaso duzue, baina beste dinamika bat ere bada: ukazioa. Zerekin du zerikusia dinamika horrek?

Nortasun, praktika eta adierazpen disidenteen izatea ukatzea ohikoa da. Ukazioaren dinamika horren baitan jaso diren adibideek sexualizatzearekin, baztertzearekin, bakartzearekin, eta ikusezin izatearekin dute zerikusia. Emakume transen kasuan, adibidez, haien nortasun eta gorputzak fetitxizatu eta exotizatu egiten dira; eta emakume lesbianen kasuan, berriz, haien lesbianismoa ukatu egiten da. Bestetik, genero adierazpen ez normatiboak ezkutuan egon behar direlako diskurtsoak ere garatzen dira. Azkenik, genero adierazpenagatik, nortasunagatik edo desiragatik baztertzea da ukazioaren beste dinamiketako bat. Esan dezakegu generoaren araberako irakurketa eginez gero, gizon moduan irakurtzen direnak direla gehiago zuzenketa dinamikak jasotzen dituztenak, eta emakume moduan irakurriak direnak eta genero nortasun ez normatiboak dituzten pertsonenak, aldiz, ukatzen direnak. Beraz, gizontasunetik ateratzen denari zigorrak jartzen zaizkio, baina zuzenketa onartzen badu, gutar izatera itzul daiteke. Ukaziozko dinamiketan, baina, ez dago itzultzeko aukerarik. 'Zu ez zara'/'ezin zara izan' esaten zaie.

Testigantzetatik argi ondorioztatu daiteke LGBTI+ pertsonen indarkeria bizi dutela Elgoibarren. Zer ondorio dauzka indarkeria horrek?

LGBTI+ fobiaren eta homofobiaren ondorioak hiru multzotan sartu ditugu: armairua, sexilioa (derrigorrezko migrazioa), eta biziraupen estrategia moduan identifikatu direnak. Heteroarautik ateratzen den pertsona oro sartzan da armairuan, baina Elgoibarko LGBTI+ pertsonen harreman desberdina izan dute armairuarekin. Batzuentzat askatasun falta esan nahi du armarioak eta indarkeriarekin lotzen dute, heteroaraua egongo ez balitz, ez litzatekeelako armairurik egongo, edo ez, behintzat LGBTI+ pertsonen zuzendutakoa, eta beste batzuentzat, berriz, babesgunea da. Hala ere, komeni da esatea batzuek ez dutela armairu barruan egoteko aukerarik ere izan, haien genero

adierazpenagatik behin eta berriro izan direlako seinalatutak. Sexilioa, berriz, LGBTI+ pertsonen bizi duten derrigorrezko migrazioari esaten diogu. Era kontzientean zein inkontzientean ematen da sexilioa, baina edonola ere, herrian bertan bizitza bizigarriak izateko baldintzarik ez izatearen ondorio da. Migratze hori prozesu zaila izan daitekeela ondorioztatzen da erantzunetatik, baina aldi berean barneratutako fobiak baztertze, zerotik hasteko eta nortasuna zabaltzeko aukera izan zaie batzuei. Bestelako biziraupen estrategiak ere aipatzen dira liburuan: arrarotasunaren harrotasuna erakustea, queer mugimenduak aspaldidanik erabil izan duen estrategia; erasoei umoretik erantzutea; unean-unean ahal den moduan ateratzea erasotik; pedagogia egitea eta mugak jartzea; jendearen epaiei aurre egitea; eta desberdin izate horregatik bizitako indarkeriaren aurrean politizatzea.

Aipatu duzu heteroaraura bazter guztietan dela indar handiko egitura, ez bakarrik Elgoibarren, baina ba al da Elgoibarren bereziki deigarria egin zaizun zerbait?

Beharbada, erreferente izan direnen eta haiek garatu izan dituzten dinamikien transmisioan egon den etena. Badago erreferentzialtasuna izan dezakeen LGBTI+ elgoibartar jende bat, baina ez dago haien ezagutzarik, eta pertsona horiek herrian helburu politikoekin artikulatu izanaren zantzurik ere ez da aurkitu. Ni ibili nintzen Elgoibarren Batxilergoan-eta formazioa ematen duela lau bat urte eta konturatu nintzen esaterako beste herri batzuetan ezagutzen dituzten erreferente batzuk hor ezezagunak zituztela. Herrian erreferente izan daitezkeen izenik ez zuten jakin ematen, eta gertuko erreferenterik ez izatearen ondorioetako bat bada bakartuta eta arraro sentitzea, baina bada baita norbere burua ukatzea ere. Garrantzitsua litzateke aztertzea zergatik eman den eten hori.

Bukaeran eraldaketarako proposamenak ere bildu dituzue.

Elkarrizketatuei arloz arlo galdetu genien non pertzibitzen eta jasaten zuten homofobia eta LGBTI+ fobia, eta galdetu genien baita ere non jarri beharko litzatekeen fokua arlo horietan gauzak aldatu ahal izateko. Arlo bakoitzean ematen den indarkeria identifikatu eta hori aldatzeko pista batzuk dira bukaerakoak.

'Gora musika' ikuskizuna estreinatuko du hilaren 18an Ene Kantak-ek Udal Musika Bandarekin

Elgoibarko Udal Musika Banda kalera irtengo da berriz ere datorren barikuan, oraingoan umeentzako eta familientzako saio batekin. *Ene Kantak* egitasmoko kideekin batera, *Gora Musika* ikuskizuna estreinatuko dute, Kalegoen plazan. Gorka Mujika Udal Musika Bandako zuzendariak aurreratu duenez, "ikuskizun handia" izango da, eta ehun bat lagun igoko dira oholtzara. Ene Kantak saioko Eneko eta Nerea izango dira saioa zuzentzearen arduradunak, eta ekitaldian parte hartuko dute Udal Musika Bandak; Musika Eskolako koru taldeak Silvia Hernandezek gidatuta; erraldoiek eta hainbat gonbidatuk, tartean, Patxi Zabaletak gitarrarekin eta Andoni Mujikak baxuarekin. Gorka Mujikak oso argi dauka publiko zabalari eskaintza prestatzea oso garrantzitsua dela, eta ez du nahi bandaren eskaintza helduentzako bakarrik izatea. Abesti eta dantzen bidez umeen artean euskara sustatzea du helburu *Ene Kantak* egitasmoak. 2010ean sortu zuten egitasmoa Nafarroan, eta gaur egun Euskal Herri osora zabaltzen dute beraien eskaintza. Umeen artean ezagunak egin diren kantu eta dantzak ekarriko dituzte Elgoibarrera. Juanma Saez eta Txomin Mujikak egin dituzte abestien konponketak. Elgoibarren izango da estreinaldia, eta gero



Bilbon egingo dute, hango bandarekin. Mujikak uste du Elgoibarko musika bandak badaukala izen eta prestigioa herritik kanpora ere, eta Ene Kantak-ek Elgoibarko banda aukeratu izana ikuskizunaren estreinaldirako garrantzitsua iruditu zaio.

Domekan ere, kontzertu berezia

Domeka honetan kontzertua emango du Udal Musika Bandak Herriko Antzokian, eta oraingoan ez dira bakarrik egongo. Musika Eskolako banda gazteak ere hartuko du parte, Gorka Mujika, Lucia Otaegi eta Beñat Isastik zuzenduta.

San Antolin jaietako errifaren irabazleak agertu dira



Janariz eta edariz beteriko karretila bat eta 500 euroko saria zozkatu zituzten Arriaga auzoan ospatu zituzten San Antolin jaien barruan, eta agertu dira saridunak. Maialen Telleriak jaso du lehen saria, janariz eta edariz beteriko karretila eta Miguel Etxeberria izan da 500 euroko saria eskuratu duena.



'Hetero' narrazio liburua aurkeztu du Uxue Alberdik

Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) bere hirugarren narrazio liburuan. *Hetero* izenburua eman dio liburuari, Alain Urrutiaren margolan bat da azala, Susa argitaletxearekin argitaratu du eta astelehenean aurkeztu zuen Donostian. *Hetero* osatzen duten zortzi ipuinak askotarikoak dira, bai teknika eta ahots narratiboen aldetik, bai kontamoldez, egituraz, musikaz, erritmoz eta ikuspuntutuz ere, baina sakonean badago konpartitzen duten irrika bat eta zauri bat, idazlearen beraren hitzetan. Alberdik zehaztu du ez dela ideia baten edo gai baten bueltan idatzitako bilduma, barruak eskatu ahala sortutako ipuinak direlako, baina ordena heteropatriarkalaren barruan mugitzen direla zortzi ipuinak eta ipuinetako pertsonaiak: "Protagonistak ez daude eroso ipuinaren barruan, baina ez dute jokoa uzten. Botere-estruktura eta estruktura psikologiko desigual horren barruan maitatzen eta desiratzen dute; espektatibak daukate, eta zapuztu egiten zaizkie; baldintzapeko askatasunean mugitzen dira".



McKenzie Warke idazle australiarraren berbak erabilita zioen hetero izateaz baino, hetero jarduteaz pentsatu beharko genukeela eta ohartu beharko genukeela noiz ari garen hetero. Hala, gizotasuna eta emakumetasuna heteroki okupatzeko moduak marrazten dira ipuinetan, beren bertsio ekonomiko, politiko, erotiko eta kulturaletan.

Miszelanea helduen irakurketa kluba sortu dute Mendaron

Mendaroko eskola umeentzako helduen irakurketa kluba sortu zuten aurrena Arno guraso elkarteak eta Mendaroko Udal Liburutegiak elkarlanean, eta orain, helduentzako sortu du Udal Liburutegiak berak. Miszelanea jarri diote izena klubari eta zabaldu dute izena emateko epea (Urriaren 15a izango da azken eguna). Saiok doan eta euskaraz izango dira, eta Mireia Delgado gidatuko ditu. Liburutegian bertan izango dira saio guztiak, eguaztenetan, hilean behin, honako egunetan: azaroaren 27a, urtarrilaren 8a, otsailaren 5a, martxoaren 5a, apirilaren 23a eta maiatzaren 14a.

Izena eman nahi dutenek hiru bide dituzte horretarako: aurrez aurre, liburutegian bertan; telefonoz, 943 033 291 telefono zenbakira deituta, eta e-postaz: liburutegi@mendaro.eus.

Plazan Dantzan ekimena antolatu du Mendaroko In Leike kultur elkarteak biharko



Bigarren urtez, Plazan Dantzan ekimena antolatu du Mendaron In Leike kultur elkarteak Udalaren laguntzarekin, bihar, zapatarako. Bi parte izango ditu ekimenak. Eguerdian kantu-bazkaria egingo dute Aitzbeltzen EinGorekin, eta ondoren, 18:00ak aldera, kalera irtengo dira, dantzara.

Eskutik eskura iritsi da Kilometroetako lekukoa Elgoibar Ikastolara

Datorren urtean Gipuzkoako Ikastolen aldeko Kilometroak jaia antolatzeko lekukoa hartu zuten domekan Elgoibar Ikastolakoek, Azpeitian ospatu zen Kilometroak jaian, eta atzo goizean egin zieten lekukoari harrera. Ikastolako familiak batu ziren ikastetxeko pistetan, eta Azkarateko bide zaharretik iritsi zen lekukoa ikastolara. Soka luzea osatuta zuten ordurako pistetan bildu ziren lagunek, eta eskutik eskura egin zuen lekukoak erdiko aretora arteko bidea. Argazki erraldoia atera zuten amaieran bildutako guztiek. 2025eko urriaren 5ean izango dira Kilometroak Elgoibarren.



Hogeigarren urtemuga ospatuko du Hezur Museoa asteburuan

Bi eguneko egitaraua antolatu dute Elgoibarko Hezur Museokoek, museoaren hogeigarren urtemuga ospatzeko. Bihar, zapatua, urriak 12, museoa bisitatzeko aukera izango da 10:30etik aurrera, eta 11:30etik 12:30era, harria zizelkatzen erakutsiko du Mikel Agirrek. Arratsaldez, berri, historiaurreko jarduerak egingo dituzte. Era berean, eta urtemugaren harira, *Egin historiaurreko lanabesa* lehiaketa ere antolatu

dute, eta bihar dute izena emandakoek egindako lanak aurkezteko eguna. 17:00etan jasoko dituzte lehiaketako lanak, eta 18:30ak aldera egingo dute sari banaketa ekitaldia, museoan bertan. Etzi, domekan, arku tiraketa egingo dute, Idotorben. 11:00etan izango da hori. Dena den, antolatzaileek aurreratu dute euria egingo balu bertan behera lagako luketela ekintza hori, eta horren ordeztu, museoa zabalduko luketela.

Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguel Euskadiko txapeldun, Elgoibarko Rallysprintean



Motor hotsek eta usainek hartu zuten Elgoibar zapatuan, Elgoibarko Rallysprinta jokatu baitzuten Azkarateko errepidean. Izena emanda zeuden 57 taldeetatik 52 batu ziren eguerdian, Kalegoen plazan, eta ibilgailu guztiak banaka irten ziren plazatik irteera punturaino joateko: Azkoitiko Olanar baserrirako bidegurutzeraino. Azkarateko errepide zaharrean 8,65 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten, hiru txandatan.

Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguel (Hyundai i20 R5) izan ziren azkarrenak, hiru erlojupeko txandak irabazi baitzituzten, nagusitasunez. Guztira 14'47"976ko denbora behar izan zuten hiru txandak osatzeko. Zortzi segundo gehiago behar izan zituzten bigarren sailkatuek (14'56"822), Ivan Muñoz gidariak eta Gabi Martinez kopilotuak Porsche 997arekin. Gorka Antxustegi eta Xabat Urresti (Ford Fiesta Rally4) igo ziren podiumeko hirugarren kaxoira, 15'24"581ko denbora eginda. Iker Etxeberria eta Alain Agirre Euskadiko Rallysprint Txapelketako sailkapen nagusiko lehen postuan iritsi ziren Elgoibarrera. Azkaratekoa zen txapelketako azken proba puntuagarrira. Laugarren egin zuten eta lortutako puntuazioa ez zen nahikoa izan Euskadiko txapela janzteko. Aitzol Apalantzak eta Olatz San MIGUELEK irabazi dute txapelketa. Sari banaketa Sanlobeer karpan egin zuten. Argazki gehiago, sailkapenak eta bideoa: barren.eus



Sanlobeer feriarekin amaitu ditu Sanlok 25. urteurreneko ekintzak



Sanlobeer azokaren karpak hartu du Maalako parkea asteburuan, eta lau egunez garagardoaren bueltan ospatu du jaia Sanlok. 25. urteurrenaren barruan iragarritako ekintzetan azkena izan da, eta besteak beste, klubeko babesleei eskerrak emateko baliatu dute. Inaugurazio ekitaldian oroigarri bana eman zieten taldeak diruz laguntzen dituzten enpresa eta erakundeei.

Asteburu osoan zehar izan dira ekitaldiak karpak, eta German Telleria Sanloko presidentek azaldu duenez "pozik" geratu dira herritarren parte-hartzearekin. Kontzertuak, bingo solidarioa eta paella jana egin dituzte besteak beste, eta "giro



ona" nagusitu dela adierazi du.

Errifak ere zozkatu zituzten eta honako hauek dira zenbaki saridunak: Sanlentob afaria 19509; telebista 1083; eta otarra 3100.

Leire eta Arkaitz Egaña neba-arrebak Gipuzkoako Ehiza Xeheko txapelkun, bigarren urtez jarraian

Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketa jokatu zuten domekan Zanbranan (Araba), eta iaiz moduan, Arkaitz eta Leire Egaña neba-arrebak izan ziren txapelketa. Senior gizonezkoen mailan 28 ehiztari lehiatu ziren, tartean Elgoibarko La Union elkarte hiru ordezkari, eta hirurak lehen hamar onenen artean sailkatu ziren. Arkaitz Egaña izan zen onena, sei eper eta galeper bat ehizatuta 3.106 punturekin. Iban Bello seigarren postuan sailkatu zen, hiru eper eta hiru galeper ehizatuta, eta Carlos Conde bederatzigarren postuan sailkatu zen, hiru eper eta galeper batekin. Lehen sei sailkatuek Euskadiko txapelketa jokatu dute domekan.

Senior emakumezkoetan hiru lehiakide izan ziren eta Leire Egaña izan zen onena, lau eper



eta faisai bat ehizatuta. Zazpigarren Gipuzkoako txapela du, eta garaipen honi esker Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan hartuko du parte bihar, Puebla de Alcocerren (Badajoz, Espainia).

Idotorbeko Igoera jokatuko dute bihar Elgoibarren

Urriaren 12a berezia da Elgoibarren txirrindularitza zaleentzat, Idotorbeko Igoera antolatzen baitu Elgoibarko Lagun Taldeak, Julian San Juanen Oroimenezkoa. Biharkoa hogeita hamabigarren edizioa izango da eta parte hartzera deitu dute antolatzaileek. Elgoibarko Lagun Taldekoek jakinarazi dute 10:30etik 11:30era eman ahal izango dela izena Kalegoen plazan jarriko duten mahaian, eta handik bertatik irtengo direla 12:00etan txirrindulariak Idotorberantz. Federatuek bost euro ordaindu beharko dute izena emateagatik eta federatu gabeek 12 euro. Iazko edizioan 36 txirrindularik parte hartu zuten eta Imanol Alvarez elgoibartarra izan zen Idotorbera iristen lehenengoa. Hamahiru minutu eta 37 segundoan osatu zuen Alvarezek 3,8 kilometroko igoera pikoia. Emakumezkoetan, berriz, Maite Maiora mendararra izan zen azkarrena.

Manifestazioa, domekan, urriaren 13an

Dena ez da, baina, poza txirrindularitzan.



Idotorberako Igoera jokatu biharamunerako, domekarako, manifestazioa antolatu baitu Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak Donostian, Gipuzkoan lasterketak antolatzeko jartzen dizkieten oztopo guztiak salatu eta konponbidea eskatzeko. Elgoibarko Lagun Taldeak eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak bat egin dute manifestazioarekin eta parte hartzera deitu dituzte txirrindulari eta zaleak. 11:00etan abiatuko da manifestazioa belodromotik eta udaletxe parean bukatuko da. Ibilbidea oinez zein bizikletaz osatu ahal izango dela aurreratu dute Federaziotik eta, ahal duenari bere taldeko edo klubeko mailota jantzita eramateko eskatu diote.

Euskal Herriko Txapelketarako sailkatu da Hodei Ezpeleta aizkolarari mendararra



Lehen mailako Euskal Herriko Txapelketarako lehenengo sailkatze txanda jokatu zuten joan zen zapatuan Doneztebeko Ezkurra frontoian, eta Hodei Ezpeleta aizkolarari mendararrak bigarren egin zuen, Iker Vicenteren, gaur egungo txapeldunaren, atzetik. Kanaerdiko bi enbor, eta 72 eta 60 hazbeteko beste bina enbor ebaki behar izan zituzten aizkolariek eta nagusitasun osoz gailendu zen Vicente, 18 minutu eta 11 segundoko denbora eginda. Ezpeleta sailkatu zen bigarren, hogeita minutu eta 47 segundotan amaituta bere lana. Julen Gabirondok egin zuen hirugarren.

Lehen Mailako Euskal Herriko Txapelketa urriaren 27an jokatuko dute Gasteizen, eta Iker Vicente aizkolarari otsagabiarra bere banakako bosgarren tituluaren bila plazaratuko da.

Bilboko Wop Challenge trail lasterketan seigarren egin du Catt Morkaiko taldeak

Bilboko Wop Challenge lasterketa solidarioa jokatu zuten joan den asteburuan, eta Full proban hartu zuten parte Elgoibarko Catt Morkaiko taldeko lagunek. 225 kilometroko lasterketa osatu behar zuten, erreleboka. 19 etapa ziren guztira, eta lasterkari bakoitzak bi etapa osatu zituen. Guztira, 19 ordu eta 43 minutuan osatu zuten ibilbidea elgoibartarrek, eta 58 taldetatik seigarren egin zuten. Julen Salaberria, Borja Rodriguez, Jose Luis Diez (Txelu), Juanan Martin, Julen Dobarro, Ruben Martinez, Aitor Aranzamendi, Denis Saiz, Jon Perez-Cortes eta Alex Bergua izan ziren korrikalariaik, eta Iñigo Astigarraga, Imanol Cerdeira, Iker Panizo eta Denis Saiz arduratu ziren logistikaz.



Emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketako finala Elgoibarren jokatuko dute urriaren 20an

Urriaren 20an Emakumezkoen Euskadiko Aizkora Txapelketako final nagusia hartuko du Kalegoen plazaz, iazko moduan. Proba berean gizonetzkoen

bigarren mailako kanporaketa ere jokatu dute. 13:00etan izango da Kalegoen plazan, eta euria egiten balu, Olaizaga kiroldegian jokatuko lukete.

Liebanako mendietara irteera antolatu du Morkaikok azarorako

Eibarko Club Deportiboarekin batera, Liebanako mendietara hiru eguneko irteera antolatu du Morkaikok. Azaroaren 1etik 3ra joango dira. Lehenengo etapan Allende-Pico Agero-Allende ibilbidea egingo dute; bigarren goan, Salarzón - Peña Ventosa - Lebeña eta azkena, Baro - Pico Jano - Potesibilbidea izango da. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa izango da federatua egotea eta adinez nagusia izatea. Bazkideek 240 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 265 euro. Prezioan sartzen da bidaiaria (autobusez), ostatua, gosaria eta afaria, baina bazkaria norberak bere kontu egin beharko du. Informazio gehiago morkaiko.eus atarian.



LANA

Eskaerak

Garbiketa lanetan jarduteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **677 069 232**

Garbiketa lanetan jarduteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **624 534 735**

LH eta DBHko ikasleei ingeleseko klase partikularrak emateko prest dagoen neska elgoibartar bat naiz. Esperientzia daukat. **674 463 800**

LH1etik LH6ra arteko ikasleei ingeles eskolak emateko prest nago. First titulua dut. **688 713 497**

Gaixoak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile titulua dut eta baserrietara joateko autoa ere bai. Esperientzia handia. **602 834 107**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain titulua daukat eta esperientzia handia. Ospitaletan zaintza lanetan gauak pasatzeko ere prest. **626 858 316**

Eskaintza

Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabilta. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta eraginkorra izatea. Denboraldi motzeko lanpostua da, abenduak 19ra arte. Berehala hasteko postua. Bidali CV: comercial@ajubita.com

KINTOAK

1948an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute urriaren 12an. 12:00etan batuko dira Kalegoen Plazan. Interesatuak 70€ ordaindu behar dituzte kontu honetan urriaren 10erako, izen-abizenak zehaztuz: ES70 30350007250071145338


Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Senar-emazteak gara, eta nire senarrak lur-sail bat jaso du amarengandik dohaintzan. Lur horretan obra egin nahi dugu etorkizunean. Nire galdera honako hau da: lursaila senarrarena izan arren, obra berri hori irabazpidezko ondasun izendatu dezakegu, edo lur-sail hori dohaintzan eman duenak egin behar du hori? Nola egin genezake nik, bikotekideak alegia, obra berri hori egiteko kapitala jarri duela jasota gelditu dadin?</p> <p>Lur-sail hori dohaintzan jaso duena lur-sailaren beraren jabea ez ezik lur horretan eraikiko denaren jabea ere bada, bikotekideari obra hori egiteko jarri duen dirua itzultzeko betebeharretik libre gelditu gabe (adibidez, kreditua eskatzen bada irabazpidezko ondasuen kontrakoa eskatuko da). Obra hori irabazpidezkoa izateko, obra berria lur-sailarekin batera izendatu beharko da bikotearena, edo bestela, lur-saila bera jarri lehenengo bikotearen izenean eta gero egin obra berria.</p> <p>AHOLKUA: Etxaldea bikotearen izenean jartzeko bi modu daude: salerosketa edo dohaintza. Galdetu iezaiozu notarioari zeintzuk diren bien arteko aldeak eta bakoitzak zer gastu suposatzen dituen, ezer egin aurretik.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Gorka maitea, mila kilo zorian zure urtebetetzean. Segi orain arte bezain alai eta jator. Asko maite zaitugu. Aittitta, amona eta bereziki, anaia Julenen partez.



Zorionak, **Nahia**, bihar 9 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta ahizparen partez. Egun zorionsua pasa dezazula opa dizugu.



1974ko kintook egun ederra izan genuen zapatua Mendaron. Ez genuen lortu denok elkartzetik, baina bildu ginenok gozatu genuen. Ez dadila batzen garen azken aldia izan!



Zorionak, **Luken!** Ondo-ondo pasa eguna eta gozatu! Maite-maite zaitugu.



Belarri tirakadetatik hiru aste beranduago bada ere, zorionak, **Markel!** Segi hain argi eta jator! Maite zaituen familiak.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:**



**PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

**Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

11 BARIKUA

16:30-20:10 Odol ateratzeak Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

Ordua hartzeko: 623 328 408

18:30 Kafe tertulia: '7. artea'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Lilan.

12 ZAPATUA

14:00 In Leike kultur elkarteak antolatuta, Plazan Dantzan ekimena. Eguerdian, kantu bazkaria Mendaroko Aitzbeltz tabernan, EinGorekin. Ondoren, 18:00etatik aurrera, kalez kaleko erromeria EinGorekin.

13 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Musika Eskolako banda gazteak ere hartuko du parte. Zuzendariak: Gorka Mujika, Lucia Otaegi eta Beñat Isasti.

1. *Galaxies*. (P. Graham).
2. *Bohemian Rhapsody* (Queen).
3. *Funktown* (S. Greenbeig).
4. *All for love* (B. Adams).
5. *La lista de Schindler* (John Williams).
6. *Shrek dance party* (P. Murtha).
7. *Jungle fantasy* (N. Iwai).

14 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta ethez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua, Merlin Medinarekin. Lilan. Bakarkako saioak izango dira eta txanda hartu behar da: 688 640 983 / elgoibarkozaintza@gmail.com

15 MARTITZENA

17:00 Zine forum saioa. Adinekoen hilabetearen barruan, Jubilatuen Biltokian.

18:00 Haurdunaldiko eta jaiotza inguruko doluari buruzko jardunaldia. Esku Hutsik taldearen eskutik, Lilan. Gaztelaniaz.

17 EGUENA

14:00 80 urtetik gorakoentzako bazkaria, Jubilatuen Biltokian. Aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte.

18 BARIKUA

18:30 Egur arte tailerreko umeen lanen erakusketa. Kultur Etxean.

19:00 Kontzertua: 'Gora musika'. Elgoibarko Udal Musika Bandak antolatuta, Ene Kantak-eko kideekin. Kalegoen plazan.

HEZUR MUSEOAREN 20. URTEURRENA

12 ZAPATUA

10:30-11:30 Ateak irekitzeko ekitaldia Hezur Museoan. Artetxe kalean.

11:30-12:30 Harri zizelkatzea, Mikel Agirreren eskutik.

16:00-19:30 Aurrehistoriarekin lotutako ekimenak, ikusle guztientzat.
- Historiaurreko erara sua egiteko tailerra Edu Gordorekin.
- Historiaurreko margoketa saioa Saul Fernandezekin.

17:00 "Egin zure historiaurreko lanabesa" lehiaketako lanak entrenatuko dituzte parte hartzaileek eta ikusgai jarriko dituzte.

18:30 Lehiaketako sari banaketa.

13 DOMEKA

11:00 Historiaurreko ehiza tresnen erakustaldia, Idotorbeko zelaietan

(*euria egingo balu, bertan behera lagako lukete eta Hezur Museoa ireki).

Zinea (Herriko Antzokian)



'Bitelchus, Bitelchus'

11 barikua: 19:00
 12 zapatua: 19:00 / 22:15
 13 domeka: 19:00
 14 astelehena: 21:00

'Gru 4: Mi villano favorito'

13 domeka: 16:30

'El monje y el rifle'

(Ongarri zinekluba)
 16 eguaztena: 21:00

**2024ko
 botika
 ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK:
 Eguez: 09:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

URRIA

11 BARIKUA	Yudego
12 ZAPATUA	Barrenetxea
13 DOMEKA	■ Oruesagasti
14 ASTELEHENA	Barrenetxea
15 MARTITZENA	■ Soto
16 EGUAZTENA	Garitaonandia
17 EGUENA	Arriola
18 BARIKUA	■ Fernandez

2024 urte guztian, gaez:
 Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	--	--

OSASUN GIDAN PUBLIZATEA JARRI NAHI DUZU?

23,82 €ren truke, hilero, zure osasun zentroaren eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da **Elgoibar eta Mendaron** erakusleiko ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu **Elgoibarren eta Mendaron DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

☎ **943 744 112**

📞 **688 769 657**

23,82€
 hilero

12
 aldiz urtean

4.700
 ale astero


barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3 ,3. ezk - ELGOIBAR



Egileak: Egurreko udako tailerreko umeak
Adina: 9 eta 14 urte bitartekoak
Elgoibar

Gure eraikina
(poxpolu kutxekin egindakoa)



BILATU ETA LOTU

Lotu 6 zenbakia ibilbidea markatuz zenbaki berarekin.

6 9 5 4 8 7
6 2 0 6 6 6
3 6 6 5 6 6 4 6
2 6 5 6 6 4 0 6
1 6 5 6 1 6
6 6 6 6 5 5

HITZAK OSATU

Ordenatu hizkiak eta fruitu bakoitzaren izena asmatu



R I G A E Z E



N A R O A K A



M E A T A T O

TXIKITIK HANDIRA

Lagunduko al diguzu igelak txikitik handira (1-6) ordenatzen?

ASMAKIZUNAK

Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek!

Kristal polita beti bustita, nahi dugu udan badugu neguan.

Kalean bizi naiz eta oso argala naiz. Hiru begi ditut: berdea, gorria eta laranja. Zer naiz?

Bata bestearen gainean, hor daude zure gorputzean musuqa, bata bestearen gainean...

Erantzunak: _____

Asmakizunak:
EZPAINAK
SEMAFORA
IZOTZA

Hitzak osatu:
TOMATEA
OKARANA
GEREZIA

GREMIONEN GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Atzek, leihoak, pertsiak, barandilak,
eltro-sareak eta toloak jarrizen ditugu.

662 234 609

odri@leioak@gmail.com
Sagar Errika Kalea 2, 20890 SORALIZE

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eu
info@biena.eu

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
tenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eu
www.plaganatura.eu

AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSOKONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsiak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltro-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,82€
hilean

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihen ikusiena.

4.700
ale astero

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

4.700 Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eu

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR